

UrMax



Gure produktuaren ardatz nagusia pertsonok dutxan ematen dugun denbora optimizatzea da. Honekin batera ingurumenaren eta aurrepenaren arazoak lantzen ditu, eta horrez gain, dutxan ematen dugun denbora musikaren bidez hobetzen du.

Guk sortu dugun produktua dutxaren denbora programatzen du pertsonalki. Norbanakoak dutxaren eman nahi duen denbora ezartzen du eta horren arabera, makinak denbora pasa ahala abisatu egiten zaitu zenbat denbora geratzen zaizun. Denbora hori bukatzen kolore gorri jartzen da eta horrek dutxatzen ari denari berak ezarritako denbora bukatu dela abisatzen dio.



Beste alde batetik, ingurumenari lotuta dauden funtzioak ere baditu. Dutxatzen zauden bitartean gastatzen zabilzan ur kantitatea eta horrek dakarren kostua markatzen dizu monitorean, ura nahi besteko gradutan kalkulatzeko aukera emanaz. Hau ur erregulatzaillean kokatutako sentso baten bidez kalkulatu da eta informazioa aparatura bidaltzen du. Honi esker, norbanakoak badaki zenbateko gastua egiten duen dutxa hartzen duen bakoitzean, eta horrekin batera kontzientziatu egiten da gastatzen duen ur

kantitateari buruz.

Gainera, etxeko txikieneztat Urmaxi deitutako marrazki bizidunetako pertsonaiak aurkeztutako bideoak egongo dira. Bideo hauen bidez Urmaxek modu erraz eta entretenigarrian azalduko die ume txikienei dutxan dauden bitartean ingurumena zaintzeko egin ditzaketen gauzak. Horrela txikitatik kontzientzia hartuko dute ingurumena zaintzeari buruz eta ohitura egokiak hartuko dituzte hori egiteko. Gainera, haieneztat produktua erakargarriagoa egiteko forma desberdinetakoak egingo dira, esate baterako, animalien itxurarekin.

Azkenik, makina honek duen beste funtzio bat hurrengoa da: musika erreproduzitzea. Honek, dutxan ematen dugun denbora dibertigarriagoa izatea eragiten du, eta bi aukera izan ditzake musika entzuteko. Alde batetik, irratia entzuteko aukera, eta bestalde, bakoitzak makinan sartutako musika.

Makina bentosen bidez ipintzen da horman, eta bertara sentso baten bidez informazioa heldu eta bertatik bahi besteko tenperatura ezartzen da.

